

2014ko urriaren 9tik 19ra

BAXE NAFARROAKO
**EUSKA
RAREN
URTAROA**



LARZABALEN
URRIAREN 19A, IGANDEAREKIN



GOIZAREKIN

- 10:00** **MINTZALDI / EZTABAIDA**
Euskararen egoera eta euskararen aldeko hizkuntza politika(k) aipagai. Erramun Bachoc eta Iñaki Martinez de Lunaren hitzaldiak eta ondotik mahain-ingurua hautetsiekin
Kanaldude & Irulegiko irratia & Baxenabarreko Euskara Gidaritza Batzordeak antolatuturik
- 10:00** **MINTZAPLAZA**
Euskaraz hitz egiteko ohitura dutenen eta ez dutenen arteko topaketa
AEK Garazi-Baigorriko Gau Eskola & Ortzaizeko ikastolak antolatuturik

EGUERDITAN

- 12:00** **KARRIKA ITZULIA**
Bunuztar xoriak & Burgaintzi & Iruski dantza taldeek emanik
- 12:00** **HAUR ETA GAZTEEN XOKOA**
Uda Leku eta Gaia (Herri kirolak) elkarateek kudeatuturik

ARRATSALDEAREKIN

- 14:00** **PILOTA**
Bota luze Iholdi-Oztibarre eta Amikuze Herri Elkargoetako kirol animatzaileak & Oztibartarrak pilota batasunak antolatuturik
- 15:00** **BAXE NAFARROAKO LEHENGO BERTSULARIEN BERTSOAK**
Haurrek kantatuturik ● Oraingo bertsulariak ● Erakusketa
Bertsularien Lagunak Elkarateak antolatuturik
- 16:00** **DANTZA IKUSGARRIA**
Burgaintzi eta Arrolako dantzarietara eta «topa dantza» ikusgarriaren zati bat Iruski taldeak emanik
- 13:00** **HILARRIEN INTERPRETAZIO ZENTROA**
Ez duzu ezagutzen ? Hor duzu parada !

Bazkaria lekuan berean eta ostatueta

Le 19/10/2014 à LARCEVEAU

- Matin** Conférence-débat sur la situation de l'euskara et la politique linguistique en faveur du basque (traduction simultanée basque >> français) et Mintzaplaza ou "bascodrome"
- A partir de midi** Jeux pour enfants et passe-rue
- Après-midi** Pelote, spectacle de danse, bertso chantés par les enfants et possibilité de découvrir le centre d'interprétation des stèles discoidales

Xehetasunak/Infos
06 72 96 59 55
euskara@baxenafarroa.fr

>>>Antolatzaileen izenean eskerrak partaide guzietara<<<

Lehendakarien hitza / Mots des Présidents

Euskararen Urtaroako lehen 2 edizioak udaberrian iragan ondoan, bozkek hala manaturik, larrazken hastapen huntan dugu biziko gure egun guziko bizian euskararen erabilpena bultzatzeko xede duen 3. ekitaldia.

Amikuze, Garazi-Baigorri eta Iholdi-Oztibarreko Herri Elkargoak eta Euskararen Erakunde Publikoak pozten dira, Euskararen Urtaroa sasoinaz kanbiaturik ere, elkarte, elkargo eta hainbat partaide aldi huntan ere engaiatzen baitira eta horri esker euskarazko animazio eta ikusgarri frango proposatuak direlako 2014ko urriaren 9tik 19ra.

Filmak, antzerkiak, kantuak, bertsoak, dantza eta mintzaldiak gure eguneroko bizia parte dira, eta hor, euskararen onetan, konplexurik gabe, gure Baxe Nafarroako jatorrizko mintzaira baliatzen ahalko dugu.

Euskararen Urtaroak urratsez urrats euskara gure egun guzietako bizian baliatzeko helburua du. Agian lurralde osoan barreiatu ekitaldietan elgar ikusiko dugu !

Après 2 éditions d'Euskararen urtaroa au printemps, c'est au début de l'automne que, année d'élection oblige, cette année nous vivons la 3ème manifestation de promotion de l'usage de la langue Basque dans notre vie quotidienne.

Les 3 communautés de communes d'Amikuze, de Garazi-Baigorri et d'Iholdi-Oztibarre et l'Office Public de la Langue Basque, même avec un petit décalage dans le temps sont heureux que l'engagement des associations, des collectivités et divers partenaires se poursuive pour nous proposer des animations et des spectacles en Euskara du 9 au 19 octobre 2014.

Des films, du théâtre, du chant, des bertsu, de la danse et des temps de parole rythment notre vie de tous les jours, et là, sans complexe, nous pourrions même imparfaitement pour le bien de l'Euskara échanger dans la langue originelle de notre Basse-Navarre.

Espérant vous rencontrer aux détours des manifestations éparpillées sur tout le territoire pour soutenir cette action qui progressivement devrait être naturellement quotidienne...



Beñat ARRABIT



Beñat CACHENAUT



Eric NARBAIS-JAUREGUY



François MAITIA

Zer da ikusten ?

Burdina nun berotu ?

Barnekaldean ere euskararen egoera ez da hoberenarik dudarik gabe. Iduri luke, lehen begiradan, hizkuntza arras bizi dela bainan ohargarri da, funtsean, inkestek ez dute bertzerik erakusten, euskararen tokia gibelera ari dela pratikan. Orduan, badira euskararen egunak eta beste euskararen urtarook... beharrezkoak eta baitezpadakoak, sua brasarik gabe ez uzteko, hiltzera utzi gabe... bainan aski dea ? Ez dea ausartago izan behar hartzen ditugun euskararen aldeko neurrietan ?

Erabilpenari lehentasuna eman

Gure lema nagusia dugu "egun eta bihar euskaraz hitza har". Bai, zinez hitza hartzea da gure eginbidea, euskaraz bizitzea da gure aterabidea. Ez da irakaskuntzan mugaturik egon behar ; euskara biziaren arlo guzietan baliatzeko egina da eta hola baizik da biziko, hedatuko eta sendotuko.

...eta familietan sustatu

Familietan, indar berezia egin beharko da zeren ohartzen baigira Ipar Euskal Herrian belaunaldi zaharretan, %30ek euskara, etxean ikasten zutela, orain kopuru bera jautsia delarik %8rat (ikus 5. inkesta soziolinguistikoa). Beraz familiaren transmisio lana arras guttitu da epe laburrean, Euskara etxean ikasi duen hiztuna beti geldituko da euskaraz hitzegile dinamiko, aldiz, alderantziz, haur ttipian etxean erdaraz hazia dena indar gehiago egin beharko du euskaradun aktibo izateko.

Beraz jakin dezagun hurrengo urteetan gure egoera soziolinguistikoari arras egokitu den euskararen politika eraikitzen ; ikusi nun den burdina berotu behar ondorio hoberekin lortzeko... Erramun Bachoc-en hitza gure egin dezagun : "Familia bidezko transmisioa beste transmisio bideekin uzartzen da, kate oso bat indarrean ezarriz : etxean, hautzaindegian, eskolan."

Euskara, familietan nola sustatu eta indartu, izanen da gure biharko lanbidea eta orientabidea, irakaskuntzan eta beste arlo sozialetan deramazkigun lan erraldoiak bazterrerat utzi gabe.

OBJECTIFS GÉNÉRAUX

- Inviter la population à utiliser l'euskara en participant aux différentes activités
- Donner l'occasion aux gens d'exprimer leur attachement à l'euskara
- Faire se rencontrer les bascophones du territoire
- Faire connaître les acteurs du territoire proposant des activités en basque tout au long de l'année
- Encourager et favoriser « le premier pas » en euskara

Owrez vos sens à l'euskara!

Euskararen urtaroa sera l'occasion de vivre en euskara pour les euskaldun. Mais, pour tous les autres, ce sera l'opportunité d'écouter et d'entendre l'euskara dans différents domaines !

Découvrez l'euskara, et exposez vous à l'euskara!

Profitions-en pour changer par notre attitude l'équation trop connue 10 bascophones + 1 francophone = 11 francophones !

La curiosité n'est pas un défaut... surtout en euskara!

Profitez de cet événement pour rejoindre la "bascophonie"!

9a, ostegunarekin

1 20:30 Donapauleko St.Louis zinegelan

FILMA Oskar Alegriak egin « Emak bakia » filma
Xehetasunak : emakbakiafilms.com
→ Argitze-k antolatuturik

10a, ostiralarekin

2 10:00 Donazaharreko Lutzibordan

ANTZERKIA « Baiu » Kiribil konpainiaren eskutik, lan aurkezpena, 6 urtez gorako haurrendako
→ Baxe Nafarroako Herri Antzokiak antolatuturik

3 18:30 Donibane Garazi - Apezpikuen presondegia

ARTEA « GazteKaitza » erakusketaren estreinaldia eta bisita komentatua
Obrak ikusgai urriaren 10etik azaroaren 1a artio
→ Itzal Aktiboa-k antolatuturik

4 20:30 Irisarriko Ospitalean

MINTZALDIA Fernando Pessoa Portuges idazlearen obra: Iñigo Roque Eguzkitza-k idatzi « Poemak pluralean » antologiak Pessoaaren pluraltasuna agertzen du
→ Har'Eman elkarteak antolatuturik

11a, ibiakoitzarekin

5 11:00 Baigorriko Plaza Xokan

IDAZLE TOPAKETA Katixa Dolharé-k idatzi « Biribilgune » eta Koldo Amestoy-ek idatzi « Erran bezala » liburuen presentaketa
→ Garazi-Baigorriko liburutegiak antolatuturik

6 20:30 Irisarriko Ospitalean

ANTZERKIA Irigarai-ek idatzi, J.P Indaburu-k zuzendu eta Irisarriko 7 gaztek eman « Sei liliak » antzezlan eta ondotik « Istaño bat » Mari Bi Sos taldearen eskutik
→ Har'Eman elkarteak antolatuturik

7 21:00 Donapauleko Airetik gelan

DANTZA HAIZEARI Getariako dantza taldeak emanik 12 € (10 € aitzin salmentan eta 5 € 12 urtez petikakoentzat)
→ Manex Erdozaintzi Etxart Kolegioak antolatuturik

12a, igandearekin

8 15:00 Aiziritzen

ZIRKOA Zirko tailerrak haurrentzat
→ Aiziritzeko Herriko Etxeak antolatuturik

9 16:00 Donazaharreko Lutzibordan

ANTZERKIA « Baiu » Kiribil konpainiaren eskutik, lan aurkezpena, 6 urtez gorako haurrendako, familiendako
→ Baxe Nafarroako Herri Antzokiak antolatuturik

egitaraua

2014ko urriaren 9tik 19ra

Retrouvez tout le programme en français sur
www.garazibaigorri.com
www.iholdi-oztibarre.com



Besoin d'un peu d'aide pour lire ce programme ?

Osteguna → Jeudi
Ostirala → Vendredi
Ibiakoitza → Samedi
Igandea → Dimanche
Astelehena → Lundi
Asteartea → Mardi

Antzerkia → Théâtre
Mintzaldia → Conférence
Idazle topaketa → Rencontre d'auteur(s)
Ingurumena → Environnement
Diktaketa → Dictée
Egin → Faire (ici "réalisé")
Idatzi → Ecrire (ici "écrit")
Pista-jokoa → Jeu de piste
Estreinaldia → Inauguration

13a, astelehenarekin

Behorlegin 11:00 10

INGURUMENA Pista-jokoa, hondarkinen berexketari sentsibilizatu jokoaren bidez
→ Bil ta Garbi-k antolatuturik

14a, asteartearekin

Baigorriko Bil Etxean 20:30 11

DOKUMENTALA Elsa Oliari-Ines-ek egin « Haien gaztaroan, iragana agerian »
→ Kanaldude-k (Aldudarrak bideo) antolatuturik

16a, ostegunarekin

Arberatzen 11:00 12

INGURUMENA Pista-jokoa, hondarkinen berexketari sentsibilizatu jokoaren bidez
→ Bil ta Garbi-k antolatuturik

17a, ostiralarekin

Donibane Garazi-Zitadelako karrikan, 22 18:30 13

ARTEA « Mugak » erakusketaren bisita komentatua Tiito Aguerre-kin, Maddi Zubeldia-ren emanaldia, Antton Arrizabalaga-k pianoan lagundurik
Obrak ikusgai urriaren 4tik 19a artio
→ Itzal Aktiboa-k antolatuturik

Donibane Garaziko Le Vauban zinegelan 20:30 14

FILMA Oskar Alegriak egin « Emak bakia » filma
Xehetasunak : emakbakiafilms.com
→ Garazikus-ek antolatuturik

18a, ibiakoitzarekin

Landibarreko Iparlatze pilota plaza estalian 10:00 15

DIKTAKETA EKE eta AEK-ren eskutik jadanik Baionako aldean egiten den bezala bi mailetako euskarazko diktaketa
→ Pagoeta kultur elkartearen eskutik

Donazaharreko Lutziborda gelan 20:30 16

ANTZERKIA Beñat Lascano-k izkiriatu eta Maialen Torre-k zuzendu « A'ments » obra - 8 €
→ Ortaizeko ikastolak antolatuturik

Partaide, hitza har!

Arloz arlo zer egiten dute eta zer egin nahi dute euskaraz /euskararen alde?

Aiziritzeko Herriko Etxea

Egun... Aiziritzeko herriko etxean, euskara gero eta gehiago sartzen dugu : idazpuru eta gutun-azalean, etxe guzietan igortzen diren berripaperetan eta ere informazio gutunak edo gomitetan.

Herriko bide eta karrika seinale guziak elebidunez agertzen dira. Urte hastapeneko agiantzetan, hitzaldia bi hizkuntzetan egiten da.

Eta bihar... Ondoko urratsa litaikere gure webgunean euskara sarraztea.

Peu à peu, la commune renforce la présence de l'Euskara dans ses écrits, sa communication et sur la signalisation. Pérenniser ces efforts, reste l'enjeu majeur.

Herri antzokia

Baxe Nafarroa Herri Antzokiaren helburuetarik bat da euskarazko ikusgarriak hedatzea, berdin sorkuntza proiektuak sustatzea.

Arreta handiz begiztatzen ditugu Euskal Herriko artista profesionalek edota zaletuek aurkezten dizkiguten asmo eta kreazioak, ahal dugun guziz plazaratzeko eta laguntzeko. Kultura bizi eta erne bat erakusten duen herrialdea erakargarria delako.

BIL ta GARBI

Euskara baliatzen da bai ahokozan (atez atekoa, hitzaldiak eskoletan, bereketa teknikari euskaldunen presentzia Lurrama, Gliss'Eguna, EHZ bezalako manifestaldietan) eta bai idatzian (Bil ta Garbiko webgunea euskaraz irakurgai, paperezko komunikazio euskarrietan euskararen presentzia).

Bil ta Garbi sindikatua engeiatzen da ere euskarazko formakuntza bat proposatuz 4 langileer.

Ihaldi-Oztibarre eta Amikuze Herri elkargoetako kirol animatzaileak

Ikastolako eta sare publikoko zoin giristinoko ikasle elebiduner kirol aktibitateak euskaraz proposatzen dizkiegu.

Euskal Kultur Erakundea

Euskal kultur erakundeak lan egiten du euskal kulturaren zaintzeko, helarazteko eta hedatzeko, ber denboran sorkuntza suspertu nahi duelarik. Ikusgarrigintzan, literaturan, ondarean edo entzun-ikus sailean ari diren kultura elkarteak laguntzen ditu, edo haiekilako arartekolaritza egiten. Gaur egun, 160 kultura edo artista elkarte Euskal kultur erakundeko kide dira. Euskal kultur erakundea kultura ekintzetan eragile da ere, egitasmo berezien bitartez.

Basé à Ustaritz, l'Institut culturel basque travaille à la sauvegarde, à la transmission et à la diffusion de la culture basque, en même temps qu'il incite à la création, sa priorité d'intervention étant donnée aux actions d'expression en langue basque.

Itzal Aktiboa

Egun... Euskal Herrian bizi eta lan egiten duten artisten lanak ezagutarazi, eta beraien teknikak hurbilagotik ulertzeko eta entseatzeko tailerrak euskaraz eskaintzen ditugu.

Bisitak deneri idekiak dira eta tailerrak ikasle gazteei zuzenduko dira.

Eta bihar... Euskal Herriko arte garaikidea eta honi loturiko artistak ulertzeko prestatuak izanen diren herritarrak sortu.

Sentimenduak, adierazpen plastikoa... horiek ere euskaraz goza eta partekatzen segi dezagun.

Har'Eman

Egun... 2009an abiatuak, Har'Emanek Euskararen ezagutza eta ibilpena zabaltzeko xedearekin, Euskaraz antolatzen ditu animazioak haurrentzat, helduentzat mahain inguruak gai desberdinetaz eta berrikiago euskara kurtso eta antzerki tailerrak.

Eta bihar... Xedeetan luke indartzea eta zabaltzea, animazio lan talde berri batzuek hala nola lekuko ekonomiaz, ingurumenaz eta bertze. Egun guzietako urratsetan Euskararen mintzatzea, sustatzea, zabaltzea beharrezkoa zaiku, guk dugulakotz hizkuntza egiten eta hizkuntzak gaituelako ere gu egiten !

Pagoeta

Munduak Landibarren Euskal Herria izena hartzen duen herri tipian, ahal den neurriko kultur ekarpen eta animazioa sortzeko asmoarekin berpiztu da. Herritar guziak, belaunaldi ezberdinak hurbiltzea eta parte hartzaile bilakatzeko sentu orokorreko kulturazko bideetan.

Kulturak hurbiltzen, desberdintzen eta batzen gaituelako !

AEK

Egun... AEK zazpi probintziako Gau Eskolak biltzen dituen mugimendua da. Euskara kurtsoak eskaintzeaz gain, hizkuntzaren erabilpena sustatzea du helburu. Mila ikasle ibili dira aurtien iparraldeko hamabi zentroetan eta 150 Baxe Nafarroako bietan.

Eta bihar... Euskal hiztunen kopurua emendatu behar dugu ikasle kopurua emendatuz eta euskararen praktika egunerokotasunean errotuz. Honetarako baliabideak segurtatu behar ditugu, egoitza egokiak eta erakasleak bereziki.

Ortzaizeko ikastola

Egun... Ortzaizeko Ikastolak azken 30 urteetan bezala ikastolan eta inguruan diren jardueretan euskaraz ikastea eta bizitzea ahalbidetzen du...
... eta bihar ere "Euskara bizi dadin, euskaraz bizi gaiten!" lema pean haurrak eta burasaok euskaraz bizitzeko edo euskalari bilakatzeko bide ezberdinak jorratuko ditu.

Pour que vive la langue basque, vivons en langue basque !

Kanaldude

Egun... Kanaldude, tokiko telebista parte hartzaileak aste guziz oren bateko euskarazko edukia ekoizten eta hedatzen du internetez eta TVPIren bidez.

Eta bihar... Iparraldeko gertakarien lekuko segitu nahi du tokiko telebistak, zuzenezko emanaldien hedapenari lehentasuna emanez, beti ere biztanleen parte hartzean oinarrituz.

Kanaldude, la télévision locale participative produit et diffuse une heure d'émission en langue basque par semaine via Internet et TVPI.

Bunuztar xoriak

Egun... Euskal dantza kurtsoak eta ikusgarriak antolatzen ditugu, aurtien 45 dantzariarekin, haur eta heldu. Haurren kurtsoak osoki euskaraz eskainiak dira, hedapen eta komunikazio idatzitako guziak elebidunez egiten ditugu, euskaraz dantzatu eta bizitzeko asmoarekin.

Eta bihar... Euskara dantza bitartez bultzatu eta zabaltu nahi dugu, ez dakiteneri ikasteko gogoia piztu eta euskalduneri mintzatzeko aukera bat gehiago eman.

Argitze

Afixatze edo komunikazio elebidun batetik haratago, Iparraldean euskarazko zinema banatuko lukeen egitura ofizial baten sortzea da St. Louis zinemaren xedea. Borroka inportanteena baina ere luzeena da. Euskarazko filmak gainerateko filmak bezala eman nahi ditugu. Hainbat partaideekin (Kontseilu Nagusia, Euskal kultur Erakundea eta departamenduko beste zinemak...) helburu hori ardiesteko lan egiten dugu.

Au delà d'un simple affichage bilingue ou d'une communication bilingue, la volonté du cinéma Saint-Louis, c'est de créer une vraie structure officielle et reconnue de diffusion du cinéma basque en Iparralde. C'est le combat le plus important mais aussi le plus long à mettre en place. Nous voulons pouvoir diffuser des films en langue basque comme n'importe quel autre film. Pour cela, différents acteurs (Conseil Général, Institut Culturel Basque, cinémas du département...) travaillent sur les conditions de réalisation du projet.

Garazikus

Egun... Programen aurkezteko liburuxkan («gazette») euskarazko aintzin solasa, Euskararen urtaroen parte hartzea (euskal filma bat), Garazikus-eko Biltzar Nagusi eta Administrazio Kontseiluko bildumak bi hizkuntzetan.

Eta bihar... Euskal filmak programazioa arruntean sartu, banaketa zirkuitu baten bidez.

L'Atalante

Bere banaketa sailaren bidez, L'Atalante euskal zinema hedatzeko lanean ari da.

A travers son activité de distribution, l'Atalante oeuvre pour la diffusion du cinéma basque. De la demande de visa à l'animation dans les salles, l'Atalante travaille à mettre en relation une production cinématographique vivace en Hegoalde et des spectateurs d'Iparralde en attente de films basques.

Ces films seraient à la fois l'expression et les ambassadeurs de ce territoire.



- ▶ **Garazi-Baigorriko liburutegia**
- ▶ **Burgaintzi**
- ▶ **Arrola**
- ▶ **Iruski**
- ▶ **Oztibartarrak**
- ▶ **Manex Erdozaintzi Etxart Kolegioa**
- ▶ **Oztibarreko ikastola**
- ▶ **Irulegiko irratia**
- ▶ **Bertsularien Lagunak Elkarte**